



## EUSKARAREN ALDEKO MANIFESTUA

Euskararen nazioarteko eguna ospatzen dugularik honako manifestua plazaratzen dugu:

**EUSKARA GURE AUKERA!**

**EUSKARAZ HAZI,**

**EUSKARAZ IKASI...**

**EUSKARAZ BIZI !**

**PENTSATU HURRENGO GALDEREN ERANTZUNETAN...**

**Zergatik euskaraz?**

**Geuk geurearen alde egiten ez badugu, nork egingo du?**

**Zer dugu egiteko?**

Euskaraz bizi nahi dut ETA AHAL DUT, DUZU, DUGU; horixe delako nire hizkuntza. Euskalduna naiz eta hala izan nahi dut gero ere.

Hizkuntza zerbaitetarako bada, harremanetarako, komunikatzeko da. Pertsona desberdinen urteetako harremanak egituratzeko eta batzeko, hizkuntza-komunitate sendo bat eratzeko balio izan du euskarak. ETORKIZUNEAN ERE, EUSKARA IZANGO BADA, KOMUNITATE HORREK IRAUN DUELAKO IZANGO DA. GUK IRAUN DUGULAKO IZANGO DA.

Halere, GU izateko jendea behar da, HIZKUNTZA-KOMUNITATEA OSATU BEHAR DA. Ezinbestekoa da euskarak iraun dezakeen komunitate bakarrean, hizkuntza-komunitate horrek duen lur eremu bakarrean, Euskal Herrian, euskara eta hizkuntza-komunitatea indartzea. Eta badakigu hori lortzeko ezinbestekoa dela euskararen berezko lurraldean bizi eta lan egiten dugun guztiok euskara ezagutzea. Are gehiago, ezinbestekoa izateaz gain, eskubidezkoa ere bada, inor bertan biziko bada, euskara ezagutzeko eskubidea izatea.

JAKITEA EZ DA NAHIKOA ordea, hizkuntza harremanetarako, komunikatzeko erabiltzen den neurrian, ezinbestekoa da, hain zuzen, erabiltzeko aukera izatea. Euskararen eremuak sortu eta hedatu behar dira. Euskaraz biziko badira, euskaraz biziko bagara, euskara biziko bada.

Gaur egun bizi dugun unea, testuinguru ezin aproposagoa da euskararen normalizazioan behar ditugun aldaketak emateko. GURE ALDE DUGU HAIZEA BEHAR DUGUN JAUZIA EMAN AHAL IZATEKO. Horrela, abenduaren 3AN guk geure hondar-alea jarri nahi dugu, euskaraz bizi nahi duen multzo handia dagoela erakutsiko dugu. Guztiok batera, lortuko dugu, pertsona bakoitzetik taldera, taldetik, hizkuntza-komunitatera eta hizkuntza komunitatetik herri osora zabalduko den ilusioz eta bizi nahiaz aurrera egitea